

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

#### **107/2019 Foru Agindua, azaroaren 22koa, onesten duena Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorraren eta Jarraipenaren Mahaiko kideak berritzea**

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorraren eta Jarraipenaren Mahaia eratzeari eta haren osaera, antolaera eta funtzionamendua arautzeari.

Dekretu horren bosgarren artikulua kideen gorabeherak arautzen ditu, eta lehenengo paragrafoan hau ezartzen du:

“Mahaikideak izendatzeko, kulturaren arloan eskumena duen diputatuak foru agindua eman behar du, kolektibo eta agente batzuek eta besteek proposatuta, hala balegokio. Era berean, ahalmena izango du mahaiaren osaera aldatzeko kargua uzteak eta izendapenak gertatzen direnean”

Aurrekoaren ondorioz, maiatzaren 22ko 167/2018 Foru Aginduz, mahaiko 23 kide izendatu ziren. Gero, martxoaren 1eko 63/2019 Foru Aginduaren bidez, mahaiko kideen osaera aldatzea onetsi zen.

Dekretu horren bosgarren artikulua dioenez, izendapen xede zuten lanpostua uztea da lanpostua uzteko arrazoietakoa bat.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Josune Albizu Urteaga, Araceli de la Horra Gutiérrez eta Nora Igartua Ugarte kentzea Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorraren eta Jarraipenaren Mahaiko kide postutik, eta eskerrak ematea emandako zerbitzuengatik.

Bigarrena. Axier Urresti Rivero eta Paco Galve Borja izendatzea Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokorraren eta Jarraipenaren Mahaiko kide.

Hirugarrena. Ebazpen hau aurreko apartatuetan izendatutako pertsonen jakinaraztea, jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Laugarrena. Foru agindu honek ematen den egunetik sortuko ditu ondorioak; nolana ere, interesdunei jakinaraziko zaie eta ALHAOn argitaratuko da.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 22a

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*

*ANA M. DEL VAL SANCHO*

*Kultura eta Kirol zuzendaria*

*M. INMACULADA SÁNCHEZ ARBE*